

EUSKARABIDEA-EUSKARAREN NAFAR INSTITUTUAREN ETA AGERRALDIA ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA, 2025. URTEAN JOLASTEKA EGITASMOA GARATZEKO.

A) XEDEA:

Hitzarmen honen xedea da Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren eta Agerraldiaren arteko oinarri orokorrak ezartzea, Agerraldia Elkarteak *Jolasteka* egitasmoa aurrera ateratzeko, Nafarroako erdialdeko eta hegoaldeko haurrei aisialdiko euskarazko jarduerak eskaintzeko.

Jolasteka proiektua Agerraldia Elkarteak garatu du, eta Nafarroako erdialdeko eta hegoaldeko haurrei eskainia da. aisialdian, eskolatik kanpo, euskara erabiltzeko eskaintzeko proiektua da.

Hauek dira aisialdian euskararen erabilera sustatzeko proposamen honen helburuak:

- Nafarroako erdialdeko eta hegoaldeko haurren eskarazko aisia bermatzea. Haurrek eskolaz haratago, euskara erabiltzeko aukera izan behar dute, eskola arautuaren eremutik kanpo. Haurrek euskararekiko sentimendu positiboak garatzeko, eremu ezberdinetan euskara baliagarria dela ikustea komeni da. Horregatik du garrantzia aisialdiak, bertan jolasaren bidez eta ongi pasatuz euskara erabilera sustatu baitaiteke.
- Haurren arteko hizkuntza ohituretan eragitea. Hizkuntza ohiturak garatzeko, praktikan jarriko diren eremuak sortu behar dira propio. Haurrek zein helduok hizkuntza ohiturak garatzen ditugu inguruan ditugun beste pertsonekin. Pertsona batekin hasieratik hizkuntza batean harremantzen bagara, normalean hizkuntza horretan egingo dugu gehienetan.
- Nafarroako erdialdeko eta hegoaldeko familiak saretzea. Proiektu honek, herri bereko zein ondoko herrietako beste familia batzuk ezagutzea ahalbideratzen

CONVENIO ENTRE EUSKARABIDEA – INSTITUTO NAVARRO DEL EUSKERA Y LA ASOCIACIÓN AGERRALDIA PARA DESARROLLAR EL PROYECTO JOLASTEKA DURANTE EL AÑO 2025.

A) OBJETO:

El presente convenio entre Euskarabidea- Instituto Navarro del Euskera y la Asociación Agerraldia, tiene por objeto establecer las bases generales para el desarrollo del proyecto denominado *Jolasteka*, para ofrecer actividades de ocio en euskera a la población en edad escolar en la Zona Media y Sur de Navarra.

Jolasteka es un proyecto desarrollado por la Asociación Agerraldia dirigido a niños y niñas de la Zona Media y Sur de Navarra. Es un proyecto para fomentar el uso del euskera en el ocio, fuera del horario escolar.

Los objetivos de esta propuesta para el fomento del uso del euskera en el tiempo libre son:

- Garantizar el ocio en euskera de los niños y niñas de la Zona Media y Sur de Navarra. Más allá del ámbito escolar, la población infantil necesita de oportunidades para poder utilizar el euskera fuera de los espacios formales de la educación reglada. Para poder desarrollar sentimientos positivos con el euskera, los niños y niñas deben ver la utilidad de la lengua en diferentes ámbitos, de ahí la importancia del ocio, donde a través del juego y de la diversión, se puede fomentar también el uso de la lengua.
- Incidir en los hábitos lingüísticos entre los niños y niñas. Para poder desarrollar hábitos lingüísticos, se necesita de espacios específicos donde estos hábitos se puedan poner en práctica. Tanto la población infantil como la población adulta, desarrollamos estos hábitos relacionándonos con otras personas de nuestro entorno. Si establecemos relaciones con otras personas desde el principio en una lengua, normalmente las seguimos manteniendo después.
- Tejer una red de familias de la zona media y sur de Navarra. De esta manera se facilita el contacto con otras familias, tanto de la misma localidad como de localidades vecinas,

du. Era horretan helburu amankomunak partekatzen dituzte eta proiektu berriak sortzen ahal dira. Familiak elkarrekin egoteko momentuetan sortzen dira proposamen berriak, herrietan dauden beharrak azaleratzen dira eta bideorria marrazteko balio dute. Gainera familiekin sortua den sareari esker, euskara bultzatzeko beste eragile batzuen proiektuen informazioa Nafarroa erdialdeko eta hegoaldeko familiei iristea lortzen da.

compartiendo objetivos y propiciando nuevos proyectos. Nuevas propuestas surgen aprovechando los momentos en los que las familias se juntan, afloran las necesidades que hay en las localidades, y eso sirve para dibujar una nueva hoja de ruta. Además, gracias a la red creada con las familias, se consigue que la información de los proyectos de otros agentes de impulso del euskera llegue a familias de la Zona Media y Sur de Navarra.

- Herrien beharretatik eskaintza berriak sortzea. *Jolasteka* talde bat martxan jartzean herriko eragile ezberdinekin egiten dugu harremana, udalak, guraso elkarteak, eskolak, elkarteak, euskara taldeak... eta harreman horietatik sortzen dira proiektu berriak.
- Zonaldean lanpostuak sortzea. Helburu bikoitza lortzen da horrela, zonaldeko herri askotan gero eta jende gutxiago bizi da, lana sortuz gazteoi geratzeko aukera ematen zaie. Gainera lan munduan ere euskaraz egiteko aukera dute *Jolastekan* begirale lanetan edo kudeaketan daudenak.
- Generar nuevas propuestas desde las necesidades de los pueblos. Al poner en marcha un grupo de *Jolasteka* nos relacionamos con diferentes agentes de la localidad, ayuntamientos, asociaciones de padres y madres, escuelas, asociaciones, grupos de euskera... y de esas relaciones surgen nuevos proyectos.
- Creación de puestos de trabajo en la zona. Se cumple así un doble objetivo: en muchos pueblos de la zona cada vez vive menos gente, creando trabajo se les permite a los jóvenes quedarse. Además, en el mundo laboral también tienen la oportunidad de hacerlo en euskera quienes trabajan como monitores o en la gestión en *Jolasteka*.

B) ZIOEN AZALPENA:

Erakunde biek azaltzen dute:

1. Euskararen sustapena eta erabilera sozila sustatzea dutela helburu komuna, eta Agerraldia elkarteak antolatu duen *Jolasteka* proiektu espezifikoa osoki gauzatu ahal izateko elkarren arteko koordinazioa beharrezkoa dela, eskola adinean daudenei aisialdiko euskarazko jarduerak eskaintzeko Nafarroako erdialdean eta hegoaldean.
2. Alde biek, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuak eta Agerraldia Elkarteak, ezagutzen eta onesten dutela Nafarroako Foru Komunitatean indarra duen lege esparrua, bi aldeei gaitasuna ematen diena hitzarmena sinatzeko eta hitzarmenaren zeinahi ekimen osagarri garatzeko.

B) EXPOSICIÓN DE MOTIVOS:

Ambas instituciones exponen:

1. Que comparten el objetivo de promover el uso social y el fomento del euskera, y que para la realización del proyecto *Jolasteka*, es necesario el trabajo coordinado para su desarrollo integral, para ofrecer actividades de ocio y tiempo libre en euskera para niños y niñas en la Zona Media y Sur de Navarra.
2. Que ambas partes, Euskarabidea – Instituto Navarro del Euskera y la Asociación Agerraldia, conocen y aceptan el marco legal vigente en la Comunidad Foral de Navarra, que habilita a ambas partes para suscribir el presente convenio y desarrollar cualquier iniciativa complementaria vinculada al mismo.

C) INDARREKO ARAUDIA:

Hitzarmen hau ondokoan ezarritakoaren arabera arautuko da:

1. 11/2005 Foru Legea, azaroaren 9koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
2. Euskarari buruzko abenduaren 15eko i 18/1986 Foru Legearen 1.2 artikuluan ezartzen dira legearen ezinbesteko helburuak: herritarrek euskara jakin eta erabiltzeko duten eskubidea babestea eta hori betetzeko tresnak zehaztea, euskararen berreskurapena eta garapena begiratzea Nafarroan, Euskararen erabilera eta irakaskuntza bermatzea, borondatezkotasun, mailakatze eta errespetu irizpideei jarraikiz, Nafarroako errealitate soziolingüistikoaren arabera..
3. Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren Estatutuak onetsi zituen azaroaren 15eko 240/2023 Foru Dekretuaren arabera, aipatutako erakundeari dagozkion eginkizunen artean dago euskara bizitza sozialeko esparruetan agertu eta erabiltzeko informazio- eta sentsibilizazio-programak gauzatzea eta helburu hori bera duten entitate publiko eta pribatuekin lankidetzan aritzea.
4. Nafarroako 2025eko aurrekontu Orokorretan, izen hau duen diru-saila onartu zen, 50.000 euroko funtsa duena: "Agerraldia Elkartearetik hitzarmena Nafarroko erdialdean eta hegoaldean *Jolasteka* euskarazko aisialdi proiektua finantzatzeko".

D) HITZARMENAREN IRAUPENA:

Hitzarmen hau sinatzen den egunean indarrean sartuko da eta indarraldia 2025eko abenduaren 31n amaituko da.

Diruz lagunduko diren gastuak 2025eko urtarrilaren 1etik 2025eko abenduaren 31 artean sorrarazitakoak eta ordaindutakoak izanen dira.

Hitzarmen honen kontra egin ahal izanen du aldeetako edozeinek, hitzarmenaren epemuga

C) NORMATIVA APLICABLE:

El presente Convenio se regirá por todo lo establecido en:

1. La Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre, de Subvenciones.
2. La Ley Foral 18/1986, de 15 de diciembre, del Euskera, establece en su artículo 1.2 los objetivos esenciales de esta la misma: amparar el derecho de la ciudadanía a conocer y usar el euskera y definir los instrumentos para hacerlo efectivo; proteger la recuperación y el desarrollo del euskera en Navarra, señalando las medidas para el fomento de su uso, y garantizar la enseñanza y el uso del euskera con arreglo a principios de voluntariedad, gradualidad y respeto, de acuerdo con la realidad sociolingüística de Navarra.
3. El Decreto Foral 240/2023, de 15 de noviembre, por el que se aprueban los Estatutos del organismo autónomo Euskarabidea - Instituto Navarro del Euskera, asigna al Organismo, entre otras, la función de realizar programas de información y de sensibilización sobre el euskera y su uso en los distintos ámbitos de la vida social, así como colaboración con entidades públicas y privadas con este mismo objeto.
4. En los Presupuestos Generales de Navarra de 2025 se aprobó la siguiente partida nominativa "Convenio con Asociación Agerraldia para financiar el proyecto de ocio en euskera para la Zona Media y Sur de Navarra", con un saldo 50.000 euros, para la firma de un convenio con el fin de desarrollar el programa *Jolasteka*.

D) DURACIÓN DEL CONVENIO:

La vigencia del presente Convenio será desde el momento de la firma hasta el 31 de diciembre de 2025.

Serán gastos subvencionables los generados y satisfechos entre el 1 de enero de 2025 y el 31 de diciembre de 2025.

El presente Convenio podrá ser impugnado por cualquiera de las partes tres meses antes de la

baino hiru hilabete lehenago.

fecha de su vencimiento.

E) AURREKONTUA:

2025erako aurrekontua 50.000 eurokoa (BEZ barne) izanen da, Nafarroako Gobernuaren 2025eko Aurrekontu Orokorren "Agerraldia Elkartearikito hitzarmena, euskarazko aisialdi proiektua eskaintzeko Nafarroako erdialdean eta hegoaldean" izeneko B30002 B3200 4819 334115 kontu-sailaren kargura.

E) PRESUPUESTO:

El presupuesto para el año 2025 será de 50.000 euros (IVA incluido), con cargo a la partida B30002 B3200 4819 334115 denominada "Convenio con Asociación Agerraldia para financiar el proyecto de ocio en euskera para la Zona Media y Sur de Navarra", de los Presupuestos Generales de Navarra de 2025.

F) DIRUZ LAGUNDUKO DIREN GASTUAK

1. Proiektuaren koordinazioa: aholkularitza, gidaritza eta dinamizazioa. Proiektuaren zuzendaritza-taldeko langileen gastuak barne hartzen ditu.
2. Proiektuaren garapena: begirale dinamizatzaileen langile gastuak.
3. Funtzionamendu gastuak: proiektua aurrera ateratzeko beharrezkoak direnak: aholkularitza juridikoa, aseguruak, lan-arriskuen babeserako zerbitzua, mantenua.
4. Administrazioa: izen-emateak, taldeen antolaketa eta bezeroarentzako arreta.
5. Prestakuntza: begiraleak trebatzeko prestakuntzaren kostua.
6. Zeharkako gastuak: bulegoko gastuak: argia, telefonoa, garbiketa, aholkularitza, ekintzetarako materiala, proiektuaren zabalpena.

F) GASTOS SUBVENCIONABLES:

1. Coordinación del proyecto: asesoramiento, liderazgo y dinamización. Comprende gastos de personal del equipo director del proyecto.
2. Desarrollo del proyecto: gastos de personal de monitores y dinamizadores.
3. Gastos de funcionamiento: necesarios para llevar a cabo el proyecto: asesoría jurídica, seguros, servicio de protección de riesgos laborales, mantenimiento.
4. Administración: inscripciones, organización de grupos y atención al usuario.
5. Formación: coste de la formación de monitores.
6. Gastos indirectos: gastos de oficina: (luz, teléfono, limpieza), asesoría material para las actividades, difusión del proyecto.

G) DIRULAGUNTZAREN ORDAINKETA:

Dirulaguntza bi epetan ordainduko da. Lehenengoa, maiatzaren 31ra arte egindako gastuei dagokiena, aldez aurretik gastuen ordainagiriak aurkeztuta; eta bigarrena, 2025eko azaroaren 15era artekoa.

Bigarren ordainketa horretan, 2025eko azaroaren 15etik abenduaren 31 bitartean sortutako eta ordaindutako gastuak aldez aurretik ordaindu ahal izanen dira, eta dagokion justifikazioa aurkeztu beharko da 2026ko otsailaren 28rako.

Bestela, soberan kobratutako zenbatekoa itzultzeko prozedura hasiko da, gastuen kalkulu erreala eta horrek sortutako interesak oinarri hartuta.

G) ABONO DE LA SUBVENCIÓN:

El abono de la subvención se realizará en dos plazos. El primero, correspondiente a los gastos realizados hasta el 31 de mayo, previa justificación de los mismos; y el segundo tras la justificación de los gastos realizados hasta el 15 de noviembre de 2025.

En este segundo abono, se incluirán, en concepto de anticipo, los gastos que se generen y abonen entre el 15 de noviembre y el 31 de diciembre de 2025, debiendo ser justificados éstos antes del 28 de febrero de 2026.

En caso contrario, se iniciará un procedimiento de reintegro de la cantidad cobrada de más en base al cálculo real de gastos, más los intereses que ello hubiera generado.

Lehen eta bigarren ordainketen kopuruak epealdi bakoitzean justifikatutako kopuruetara egokituko dira, bi ordainketen batuketak emandako urteko dirulaguntzaren erabateko zenbatekoa gainditu gabe.

H) DIRULAGUNTZA JUSTIFIKATZEA:

Emanen den dirulaguntza, Dirulaguntzen gaineko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeak ezarritako baldintzen arabera justifikatuko da, ondoren zehazten diren epe eta dokumentuen bidez:

- a) Emandako dirulaguntza justifikatzeko dokumentazioa Nafarroako Gobernuaren Erregistro Orokor Elektronikoaren bidez aurkeztuko dira, Euskarabidea - Euskararen Nafar Institutuari zuzenduta. Dokumentazioa aurkezteko epeak 2025eko ekainaren 15ean eta azaroaren 15ean bukatuko dira, epe bakoitzari dagokion ordainketa egin ahal izateko. Halere, H oinarriarekin bat, 2026ko otsailaren 28rako bidali beharko da 2025eko azaroaren 15etik aurrera egindako jardueren justifikazioa.
- b) Langile gastuak justifikatzeko, Agerraldia Elkarteko kideek egitasmoan emandako orduak zerrendatuko dira eta, horrekin batera, nominak, Gizarte Segurantzaren kotizazio agiriak eta PFEZaren atxikipenak aurkeztuko dira.
- c) Langile gastuak ez diren bestelako gastu zuzenak justifikatzeko, gastu horiek zerrendatuko dira bakoitzari dagozkion xehetasun hauek adierazirik: zenbatekoa eta ordainketa data. Agiri horrekin batera, fakturak eta gastuak frogatzeko baliokideak diren bestelako dokumentuak aurkeztuko dira, bai eta ordainagiria ere.
- d) Zeharkako gastuak justifikatzeko (horien barnean daude bulegoko materiala, argia, alokairua, aseguruak, ekintzetarako materialak eta antzekoak), gastuen azalpenak eta zenbatekoak zerrendatu eta aurkeztuko dira, horiei dagokien ordainagiria atxikirik.

El importe a abonar en cada uno de los dos pagos (primero y segundo), dependerá de la justificación efectiva de gastos realizada en cada periodo, sin que la suma de ambos pagos pueda superar el importe total de la subvención anual concedida.

H) JUSTIFICACIÓN DE LA SUBVENCIÓN:

La justificación de la subvención concedida, según las condiciones establecidas en la Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre, de Subvenciones se realizará en los plazos y mediante los documentos que se relacionan:

- a) La documentación justificativa de la subvención concedida será presentada a través del Registro General Electrónico del Gobierno de Navarra, y dirigida a Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera. Los plazos para la presentación de dicha documentación finalizarán el 15 de junio y el 15 de noviembre de 2025, para proceder al abono respectivo. Sin embargo, de acuerdo con la base H, se deberá enviar para el 28 de febrero de 2026 la justificación de las actividades realizadas con posterioridad al 15 de noviembre de 2025.
- b) La justificación de los gastos de personal se realizará mediante la presentación de una relación de horas reales dedicadas al proyecto por el personal de la Asociación Agerraldia, acompañada de las correspondientes nóminas, cotizaciones sociales y retenciones de IRPF.
- c) La justificación de los gastos directos, distintos de los de personal, se realizará mediante la presentación de una relación numerada de los mismos donde se detallará para cada uno de ellos su importe y fecha de pago. A esta relación se adjuntará las facturas u otro tipo de documentos con valor probatorio equivalente, así como el documento acreditativo de su pago.
- d) Los gastos indirectos, entre los que se incluyen útiles de oficina, luz, alquiler, seguros, material para las actividades y otros análogos, se acreditarán mediante la presentación de una relación de conceptos e importes, acompañada de los correspondientes justificantes de pago.

Fakturak eta gainerako agiriak era egokian zenbakituko dira eta gastuen zerrendan ageri diren hurrenkera berean aurkeztuko dira, BEZa edo bestelako zergak barne hartuta. Jardueraren bat zergen ordainketatik salbuetsirik badago, hala adieraziko da.

Orobat, diruz lagundutako egitasmoak bukatu ondoren, 2025eko ekainaren 15a baino lehen Agerraldia Elkarteak txosten partzial bat aurkeztuko du, non epealdi horri dagozkion gauzaturiko jardueri buruzko xehetasunak emanen dituen. Era berean, 2025eko azaroaren 25a baino lehen, 2025eko azaroaren 15a arteko jarduerari dagokion txosten partziala aurkeztuko du. Proiektuaren amaierako memoria, aurreikusitako helburuen betetze mailaren balorazioa jasoko duena, 2026ko otsailaren 28a baino lehen aurkeztuko da.

Horretaz gain, gastuen amaierako justifikazioa ez bada onartutako aurrekontu guztiaren zenbatekoa adina, baina, hala ere, onuradunak frogatzen badu dirulaguntzaren xedea benetan bete duela eta superabitik ez dela izan, ulertuko da onuradunak bete duela dirulaguntza justifikatzeko betebeharra. Edozein moduz, Euskarabideak erabakiko du gastuen justifikazioa bateragarria denentz deialdiaren xedea gauzatzearekin.

Era berean, deialdiaren helburua osorik betetzen ez bada, jasoko den zenbatekoa gutxitu egingen da, gauzatu eta justifikatze mailarekiko modu proportzionalean gutxitu ere.

I) GARDENTASUNA:

1. Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen 3. c) artikuluan aipatutako entitate pribatuak behartuak daude gardentasun betebeharra betetzera baldin eta, urtebetean, 20.000 eurotik gorako laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen badituzte Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura, edo jasotako laguntzak edo dirulaguntzak beren urteko diru-sarrera guztien %20 edo gehiago badira eta, gutxienez, 5.000 euro.

Las fotocopias facturas y demás documentación se numerarán correlativamente y se presentarán en el mismo orden en que figuren en la relación de gastos, con inclusión del IVA u otros impuestos. En aquellos casos en que la actividad estuviera exenta de impuestos, así se hará constar.

Además, una vez realizados los proyectos subvencionados, las Asociación Agerraldia presentará a Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera, antes del 15 de junio de 2025, un informe parcial que detalle las acciones realizadas hasta la fecha, y antes del 25 de noviembre de 2025, el segundo informe parcial correspondiente a la actividad realizada hasta el 15 de noviembre de 2025. La memoria final del proyecto, que incluirá la valoración del cumplimiento de los objetivos previstos, será presentada antes del 28 de febrero de 2026.

En el caso de que la justificación final del gasto no alcance el importe total del presupuesto aceptado, siempre que se acredite por el beneficiario el cumplimiento efectivo del objeto de la subvención y la no existencia de superávit, se considerará que el beneficiario cumple con la obligación de justificación de la subvención. No obstante, Euskarabidea valorará si dicha justificación es compatible con la ejecución efectiva del objeto.

Por otra parte, si la ejecución del proyecto subvencionado no fuera total, el importe a percibir se minorará proporcionalmente a la parte realizada y justificada.

I) TRANSPARENCIA:

1. Las entidades privadas a que hace referencia el artículo 3 c) de la Ley Foral 5/2018, de 17 de mayo, de Transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno, están sujetas a las obligaciones de transparencia cuando perciban, durante el periodo de un año, ayudas o subvenciones con cargo a los presupuestos generales de Navarra en una cuantía superior a 20.000 euros, o cuando las ayudas o subvenciones percibidas representen al menos el 20% del total de sus ingresos anuales, siempre que alcancen como mínimo la cantidad de 5.000 euros.

2. Aurreko atalean ezarritako mugak gainditzeko, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak edo haren erakunde publikoek urte naturalean emandako dirulaguntza guztien kopuruak batuko dira. Urte batean baino gehiagotan ordaintzen diren dirulaguntzen kasuan, aurrekontuko ekitaldi bakoitzean emandako kopurua hartuko da kontuan ondorio horietarako, ez guztizko batura. Negozio zifra honako hauetako txikiena izanen da:

- a) Aurreko urteko negozio-zifra.
- b) Hala bada, dirulaguntza ematen den ekitaldian entitatearen organo eskudunak onartutako negozio zifra.

3. Aipatu diren inguruabarrak gertatzeagatik gardentasun betebeharrak dituzten entitate onuradunek jarraian adierazten den informazioa eman beharko dute hilabeteko epean, dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazten denetik zenbatzen hasita:

- a) Entitatearen gobernu, administrazio eta zuzendaritza organoen osaera.
- b) Organo horiek osatzen dituzten kargudunen zerrenda.
- c) Entitateak aurreko urtean kargudun bakoitzari ordaindutako ordainsari gordinak eta gainerako diru konpentsazioak, kontzeptuz kontzeptu. Sortu berriak diren entitateen kasuan, informazioa izanen da haien aurrekontuetan edo plan ekonomiko-finantzarioan jasotakoa.
- d) Gobernu, administrazio eta zuzendaritza eginkizunetan ematen den dedikazioaren araubidea.
- e) Entitate onuradunaren urteko azken kontuen kopia bat.

Informazio hori entitate onuradunaren legezko ordezkariak sinatuta aurkeztuko da, Nafarroako Gobernuaren Erregistro Orokor Elektronikoen bide telematikoa erabiliz, eta dirulaguntza kudeatzen duen administrazio unitateari bidaliko zaio.

Entitateak gardentasun betebeharra bete behar ez badu aurreikusitako inguruabarrak gertatzen ez direlako, horren gaineko

2. A los efectos de considerar si se superan los límites cuantitativos establecidos en el apartado anterior, se sumarán las cuantías de todas las subvenciones concedidas por la Administración de la Comunidad Foral de Navarra o sus organismos públicos en el año natural. En el caso de subvenciones cuyo pago se haga en diferentes anualidades, se computará a estos efectos la cantidad concedida en cada ejercicio presupuestario y no la suma total. La cifra de negocio será la que tenga menor importe entre las siguientes magnitudes:

- a) La cifra de negocio del año anterior.
- b) En su caso, la cifra de negocio aprobado por el órgano competente de la entidad en el ejercicio de concesión de la subvención.

3. Las entidades beneficiarias de subvenciones que se encuentren sujetas a la obligación de transparencia al concurrir los supuestos previstos, deberán comunicar en el plazo de un mes contado desde la notificación de la resolución de concesión, la información que se relaciona a continuación:

- a) Composición de los órganos de gobierno, administración y dirección de la entidad.
- b) Relación de los cargos que integran dichos órganos.
- c) Las retribuciones brutas y demás compensaciones económicas percibidas de la entidad en el año anterior por cada uno de los cargos, desglosadas por conceptos. En el caso de entidades de nueva creación, la información será la que figure en sus presupuestos o plan económico-financiero.
- d) El régimen de dedicación a las funciones de gobierno, administración y dirección de la entidad.
- e) Una copia de las últimas cuentas anuales de la entidad beneficiaria.

La información señalada se presentará firmada por el o la representante legal de la entidad beneficiaria de forma telemática a través del Registro General Electrónico del Gobierno de Navarra y se dirigirá a la unidad administrativa que gestiona la subvención.

En el caso de que la entidad no se encuentre sujeta a la obligación de transparencia al no darse los supuestos previstos, deberá presentar una

aitorpena aurkeztu beharko du (II. eranskina).

Entitateak ekitaldi berean dirulaguntza bat baino gehiago jasotzen badu, ez du informazioa errepikatu beharko dirulaguntza bakoitzerako, salbu eta hasieran eman zituen datuak aldatzen badira. Horretarako, entitateak identifikatu beharko du Foru Komunitateko Administrazioaren zein organoren aurrean aurkeztu zuen, eta noiz.

Betebehar hori bete ezean, emandako dirulaguntza ez da ordainduko, ezta aurrerakinak ere, eta kobratutako zenbatekoak itzuli egin beharko dira, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 35.1 c) artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Aurrekoa galarazi gabe, onuradun guztiak behartuak daude unitate kudeatzaileari behar den informazio guztia ematera, aurretiazko errekerimendua eginda eta hamar eguneko epean, frogatzeko betetzen direla maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen II. tituluan jasotako gardentasun betebeharrak (aipatutako foru lege horrek hizpide ditu gardentasuna, informazio publikoa eskuratzea eta gobernu ona).

Errekerimenduan emandako epea bukatzen bada eskatutakoa bete gabe, hertsapen isunak ezartzea erabakitzen ahalko da, 500 eurotik 5.000 eurora bitartekoak, interesdunari ohartarazpena egin ondoren eta entzunaldia emanda. Isuna hamabost egunetik behin errepikatuko da, errekerimendua bete arte. Isunaren zenbateko osoa ez da izan dirulaguntzaren zenbatekoaren ehuneko bost baino handiagoa. Zenbatekoa zehazteko, ez-betetzearen astuntasuna eta proportzionaltasunaren printzipioa hartuko dira kontuan.

J) AZPIKONTRATAZIOA

Deialdi honetan aurreikusitako ondorioetarako, bidezkoa da azpikontratazioa egitea, alegia, hirugarrenekin hitzartzea haiek gauzatu dezatela, hein batean, dirulaguntzaren xede den jarduera. Dirulaguntzaren xede den jarduera onuradunak berak egin ahal izateko egin behar dituen gastuen kontratazioa kontzeptu horretatik kanpo gelditzen da.

declaración en tal sentido (Anexo II).

En el caso de que la entidad sea beneficiaria de sucesivas subvenciones en el mismo ejercicio, no será preciso reiterar la información con ocasión de cada subvención, salvo que hayan cambiado los datos que se facilitaron inicialmente. Para ello, la entidad deberá identificar el momento y el órgano de la Administración de la Comunidad Foral ante el que la presentó.

El incumplimiento de esta obligación impedirá el abono de la subvención concedida, incluidos los anticipos y conllevará, en su caso, el reintegro de las cantidades percibidas, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 35.1 c) de la Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre, de Subvenciones.

Sin perjuicio de lo anterior, todos los beneficiarios estarán obligados a suministrar a la unidad gestora, previo requerimiento y en un plazo de diez días, toda la información necesaria para el cumplimiento por ésta de las obligaciones de transparencia previstas en el Título II de la Ley Foral 5/2018, de 17 de mayo, de Transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno.

Una vez transcurrido el plazo conferido en el requerimiento sin que el mismo hubiera sido atendido, se podrá acordar, previo apercibimiento y audiencia al interesado, la imposición de multas coercitivas de 500 a 5.000 euros. La multa será reiterada por períodos de quince días hasta el cumplimiento. El total de la multa no podrá exceder del cinco por ciento del importe de la subvención. Para la determinación del importe, se atenderá a la gravedad del incumplimiento y al principio de proporcionalidad.

J) SUBCONTRATACIÓN

A los efectos previstos en este convenio, está permitida la subcontratación, entendiendo por esta la concertación con terceros de la ejecución parcial de la actividad que constituye el objeto de la subvención. Queda fuera de este concepto la contratación de aquellos gastos en que tenga que incurrir el beneficiario para la realización por sí mismo de la actividad subvencionada.

Entitateek, gehienez ere, diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren % 50 azpikontrata dezakete. Hirugarrenekin hitzartutako jarduerak dirulaguntzaren zenbatekoaren % 20 gainditzen badu eta zenbateko hori 60.000 eurotik gorakoa bada, idatzizko kontratuaren bidez egin beharko da azpikontratazioa.

K) EZ BETETZEAK, ITZULKETAK ETA ARAU-HAUESTAK.

a) Ez-betetze arintzat joko dira irregulartasun formalei dagozkienak; halakoetan, dirua partez itzuli beharra egonen da, edo ordainketa partzialik ez egitea, ez-betetzearen muntaren arabera. Ez-betetze astuntzat joko dira, berriz, funtsezko kontuei dagozkienak; halakoetan, arau orokor gisa, dirua osorik itzuli beharko da, edo ez da deus ere ordainduko. Batean nahiz bestean berandutze-interesak eskatzen ahalko dira, azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean ezarritako kasuetan. Unitate kudeatzaileak mailakatzea egiteko komenigarriak iruditzen zaizkion irizpideak ezartzen ahalko ditu.

b) Arau-hauste eta zehapenei dagokienez, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen IV. tituluan xedatutakoa aplikatuko da.

L) DIRULAGUNTZAREN PUBLIZITATEA:

Onuradunak behar bezalako publizitatea emanen dio hartutako dirulaguntzari, dirulaguntzaren onespeneraren hasieratik eman ere. Ahozko zein idatzizko publizitate bakoitzean jasoko da Nafarroako Gobernuak Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren bitartez parte hartzen duela. Aipamen hau Nafarroako Gobernuak sinbolo ofiziala arautzen duen otsailaren 12ko 8/2020 Foru Dekretuaren jarraibideekin bat egiten da eta jarduera zabaltzen den denbora guztian mantenduko da.

Las entidades podrán subcontratar hasta un límite máximo del 50% del importe de la actividad subvencionada. Cuando la actividad concertada con terceros exceda del 20% del importe de la subvención y dicho importe sea superior a 60.000 euros, la subcontratación estará sometida a la celebración por escrito del contrato.

K) INCUMPLIMIENTOS, REINTEGROS E INFRACCIONES

a) Se considerarán incumplimientos leves los referidos a irregularidades formales, en cuyo caso procederán reintegros o ausencia de abonos parciales proporcionales a dichos incumplimientos, e incumplimientos graves los referidos a cuestiones sustantivas, en cuyo caso, la regla general será el reintegro o ausencia de abono total, sin perjuicio en ambos casos de la exigencia de interés de demora en los supuestos establecidos en la Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre. La unidad gestora podrá establecer los criterios de graduación que estime oportunos.

b) En materia de infracciones y sanciones se estará a lo dispuesto en el título IV de la Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre, de Subvenciones.

L) PUBLICIDAD DE LA SUBVENCION:

La entidad beneficiaria deberá dar la adecuada publicidad de la subvención concedida desde el inicio de la aprobación de la misma, haciendo constar en cada publicidad oral y escrita la participación del Gobierno de Navarra mediante Euskarabidea-Instituto Navarro del Euskera. Esta mención se hará de acuerdo con las indicaciones del Decreto Foral 8/2020, de 12 de febrero, que regula el símbolo oficial del Gobierno de Navarra y se mantendrá durante todo el tiempo de difusión de la actividad.

**M) DIRULAGUNTZAREN
BATERAGARRITASUNA:**

Dirulaguntza hau bateragarria da xede bererako edo beste batendako jaso daitezkeen bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin. Horietako bat lortuz gero, jakin bezain laster Euskarabideari horren berri eman beharko zaio, betiere, jasotako dirua zertan erabili den frogatu baino lehen.

Hori hala izanik ere, dirulaguntzen kopurua ez da sekula izanen, bakarka edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin batera, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa.

M) COMPATIBILIDAD DE LA SUBVENCIÓN:

Esta subvención es compatible con la percepción de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad u otras, cuya obtención se deberá comunicar a Euskarabidea tan pronto como se conozca y en todo caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación dada a los fondos percibidos.

No obstante, el importe de las subvenciones en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

MEMORIA ETA BIZIKIDETZAKO, KANPO
EKINTZAKO ETA EUSKARAKO
KONTSEILARIA/ LA CONSEJERA DE
CONVIVENCIA, ACCIÓN EXTERIOR Y
EUSKERA

Ana Ollo Hualde

AGERRALDIA ELKARTEAREN LEHENDAKARIA /
LA PRESIDENTA DE ASOCIACIÓN DE
AGERRALDIA

Libe Jusue Rosano

**EUSKARABIDEAREN ETA AGERRALDIA ELKARTEAREN ARTEKO
HITZARMENA (2025)**

**CONVENIO ENTRE EUSKARABIDEA Y ASOCIACIÓN AGERRALDIA
(2025)**

CONCEPTO	CANTIDAD
1.-GASTOS DE PERSONAL	
Coordinación: Gasto personal de la directora del proyecto.	16.000
Monitores: Gasto personal de monitores.	20.000
Preparación: Gasto personal de la preparación y asesoría de la programación.	7.500
Administración: Gasto personal de la administración de Agerraldia, correspondiente al proyecto.	2.500
2.-FORMACIÓN	
Gasto de formación.	1.000
3.- GASTOS INDIRECTOS	
Gastos indirectos: luz, agua, teléfono, seguro, limpieza, asesoría, material para las actividades, difusión del proyecto	3.000
Total	50.000

AZALPENA	DIRU KOPURUA
1.-LANGILE GASTUAK	
Koordinazioa: proiektuko zuzendariaren langile gastuak	16.000
Begiraleak: begiraleen langile gastuak	20.000
Prestaketa: programazioaren prestaketa eta aholkularitzaren langile gastuak	7.500
Administrazioa: Agerraldiko administrariaren langile gastuak, proiektuari dagozkionak	2.500
2.-FORMAKUNTZA	
Formakuntza gastuak	1.000
3.-ZEHARKAKO GASTUAK	
Zeharkako gastuak: argindarra, ura, telefonoa, aseguruia, garbiketa, aholkularitza, ekintzetarako materiala, proiektuaren zabalpena	3.000
Guztira	50.000

II. eranskina / Anexo II

[Gardentasun betebherrari buruzko adierazpena \(PDF\).](#)

[Organoen osaketari eta dedikazioari buruzko adierazpena \(PDF\).](#)

[Karguen ordainsariei buruzko adierazpena \(PDF\).](#)

[Declaración sobre la obligación de transparencia \(PDF\).](#)

[Declaración sobre la composición órganos de gobierno y dedicación \(PDF\).](#)

[Declaración sobre las retribuciones de los cargos \(PDF\).](#)